



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 2a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena. María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izan dadin. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraioaren estaldura zabal dezan. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onets dezan Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan 2022. urtea baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da maiatzaren 31ra arte luza dezan aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten pean egon eta 20.000 eurotik beherako errentak dituzten pertsonen diru-sarreraren osagarria. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak. Mozioa erretiratzea (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPi finantza-hornidura eman diezaion, ukitutako NUPEko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira informazio-kanpaina bana egin dezaten kanabisaren kontsumotik heldu diren arriskuei buruz eta, zehazki, adingabeen artean kanabisaren kontsumoa prebenitzeko. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak ezetsi du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan ezin izaneren dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko. Mozioa erretiratzea (14. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emeleak:

- 2/2021 Foru Lege-dekretua, otsailaren 24koa. Honen bidez, egiten da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoek dagokienez), eta aldatzen dira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesioaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzek, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Pasa den asteartean, Gobernuak Diputatuen Kongresura igorri du Eliza Katolikoak, Aznarren Gobernuak aldatutako Hipoteka Legeari esker, 1998 eta 2015 artean immatrikulatutako ondasunen zerrenda osoa. Izan ere, lege horrek bidea ematen zion higiezinak bere jabetzako ondasun

gisa erregistratzeko elizaren ziurtagiri soil baten bidez.

Urte horietan, Elizak landa-lurreko eta hiri barneko ondasunak jarri zituen bere izenean, bai eta gurtzarako lekuak ere.

Zerrenda horren arabera, Nafarroan 994 dira Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunak, Nafarroako lurralde-eremuan daudenak.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitara dezan Elizak 1998az geroztik immatrikulaturiko ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena, kaltetutako pertsona fisiko eta juridikoek kontsultatze aukera izan dezaten. Halaber, premiatzen du zerrenda hori Nafarroako toki entitateei helaraz diezaion.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arestian aipatu ondarearen defentsa, bidegabeki immatrikulatutakoarena, babes dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeko familientzat duen kostua.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeko familientzat duen kostua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloak (0-3 urte) modu eraginkorrean laguntzen die adin horretako haurrei, bai beren garapen orekaturako, bai haurren gaitasun kognitibo eta afektiborako, mugitzeko gaitasunerako eta inguruarekiko elkarreaginerako eta komunikaziorako.

Gaitasun horiek eskuratzeko aukera bereziki garrantzitsua da beren familien egoera soziala eta lanekoa dela-eta etxean etengabeko estimulazio, arreta eta afektu girorik aurkitzen ez duten haurren kasuan, erabateko garapena lortzeko bidea izan dezaten.

Horri dagokionez, ebidentzia enpirikoa oso zabala da; hala, hezkuntza goiztiarrak eragin

askoz handiagoa du errenta maila baxuko eta giro sozial behartsuetako familietatik datozen haurrengan, klase ertain eta altuko familietakoengan baino.

Garai hauetan, COVID-19ak eragindako osasun krisiak are gehiago handitu ahal duenean gizarte-arrakala, beharrezkoa da gehien behar duten haurrek babestea eta eskolatzeko egokia ziurtatzea kalitatezko hezkuntza-inguruneetan, desberdintasun pertsonalak, kulturalak eta sozialak konpentsatzeko. Ingurune horien xedeak izan behar du, familien lankidetzarekin, haurren nortasunaren eta beren ahalmen guztien garapen-prozesu guztiz egokia ematea, ongizate- eta segurtasun-esparru batean.

Zorionez, azken urteotan Nafarroan haur eskolen sare indartsu bat garatu da, bai ekimen publikoaren eskutik (udalak eta Nafarroako Gobernuak), bai ekimen pribatuaren eskutik. Sare horrek gaitasuna du kalitatezko zerbitzu emateko gure erkidegoko adin horretako ia haur guztiei.

Hala ere, aurreko krisian ere ikusi ahal izan genuen moduan, ikusten ari gara nola Nafarroako familia asko, beharbada behartsuenak, haur eskolak uzten hasiak direla, eta hurrengo ikasturterako aurreikuspena, datorren krisi soziala dela-eta, joera horrek okerrera egitea da.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeko familientzat duen kostua; hain zuzen, udalen edo Gobernuaren beraren mendeko eskola publikoetan eskolatzeko direnena, bai eta Hezkuntza Departamentuak baimendutako eskola pribatuetan eskolatutakoena ere.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.

Donejakue Bideak gure erkidegoa egituratzen du, eta dozenaka liburuk deskribatzen dituzten irudimenezko paisaietan sakontzen du. Gure ondare material eta immaterialaren zati bat da, nazioarteko leiho bat, zeinarekin gure komunitatea bisitari bakoitzari erakusten baitiogu, esperien-

tzia bakar eta bizi horretaz gozatzea erabakitzen duen pertsona bakoitzari.

2021. urteari ekin genionean, albistea izan zen 2021eko Jubileu Urtea edo Donejakue Urtea 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzen zela COVID-19tik eratorritako pandemiaren ondorioz. Arrazoiak izan ziren, besteak beste, jende-pilaketak saihestea eta, osasun-egoerak hobera eginez gero, malgutasuna bideratzea.

Donejakue Bideak osagai espiritual oso garrantzitsua du, baina abentura aberasgarria ere izan daiteke, esperientzia moduan. Ibilbide bat non jakintza-trukea, kultura, gastronomia, historia... funtsezko elementuak diren bidea, oro har, ulertzeko.

Duela aste batzuk, Parlamentuan, Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteari entzun genion, eta azaldu ziguten beharrezkoa zela Bidea belaunaldi berriei ezagutzera ematea, eta Bidea gaztetzeko premia zegoela, hau da, transmisioa eta gure erkidegoko gazteen parte-hartzea indartzeko premia.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gazteriaren Institutua premiatzen du:

- Bat egin dezan 2021-2022 Donejakue urtearen ospakizunarekin.

- Jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.

- Done Jakue Bideak zeharkatzen dituen autonomia erkidegoetako gazteen trukea susta dezan, Bidea egin dezaten.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan egin dezan alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izan dadin.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lan egin dezan alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, martxoaren 4ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Berriki jakin dugu Nafarroan azken 5 urteotan alokatzeko etxebizitzaren prezioa ehuneko 46 inguru igo dela

Oraintxe bertan Nafarroan eredu-etxebizitzaren alokairua hilabeteko 1.000 eurora hurbiltzen da, eta batzuetan hortik gora egiten du. Ezinezkoa dirudi, familia askorentzat, zenbateko horri

aurre egitea, eta igoera geldiezinak zailtasun ekonomikoak sorraraziko ditu, zalantzarik gabe, beste askorentzat, pandemiarekin batera sortutako krisaldi ekonomikoagatik.

Arretaz jarraitu dugu Espainiako Gobernuan izandako eztabaida, estatu mailan itundutako etxebizitzari buruzko legearen mugen gainekoa, baina foru ituna gogoratu eta sendotu behar dugu, zeinaren bidez Nafarroak, bere autogobernuari eta María Chivite sozialista lehendakari zara eraman zuen inbestidura akordioari esker, konpromisoa hartu baitzuen alokairuen iraunkortasun-indizea sortzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen du, behar diren alde aurreko lanei eki diezaien, lortze aldera alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izatea 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera:

– Zuzeneko zergetan (PFEZ) lehentasuna eta penalizazioa jarri etxebizitzaren alokairuari, haien errentak ISAtik behera edo gora egiten duenean.

– Lehentasuna eta penalizazioa jarri kontratu berrien errentak mantentzeari edo handitzeari, etxebizitza beraren aurreko kontratuekin alderatuta.

– Etxebizitzak ISAtik gora alokatzea debekatuz, jabeen elkarteari bidez zaharberritzeko dirulaguntzak eskuratu badituzte.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraioaren estaldura zabal dezan.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskola-garraioaren estaldura zabal dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eskola-garraioaren estaldura zabaltzeari buruzko honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Legegintzaldi honetako programa-akordioa sinatu duten talde parlamentarioek, "Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna" ataleko 50. puntuan, honako konpromisoa hartu dute: "Garraioa eskubide oso gisa aitortu ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta OLHko ikasleei. Salbuespenezko neurriak hartu beren ezaugarrietatik hala behar duten herrietan".

Orain arte ez dugu jakin Hezkuntza Departamentua araua aldatzeko lanetan ari denik, ez eta eskola-garraioaren estaldura eta ikasleen eskubi-deak zabaltzeko beharrezkoak izanen liratekeen antolaketa- eta ekonomia-alderdietan ere.

Testuinguru horretan, eskaera hori nabarmena da udalen eta hezkuntza-komunitateen aldetik.

Esate baterako, Zizur Nagusiko Udalak, 2019ko abenduaren 12an adierazpen instituzional bat onetsi zuen, zeinetan kasuko finantzaketa eskatzen baitzen Ardoi auzotik eta Zizur Nagusiko alde zaharretik herriko ikastetxeetarako eskola-garraiorako, "halatan bermaturik ekitate, berdintasun eta doakotasun printzipioak, eta errazturik

ikasleak udalerrian bertan erroturik egon daitezzen".

Eskaera horren justifikazioa ziren herriko ikastetxe publikoetara doazen adingabeek ibili behar izaten dituzten distantziak, ezen, gainera, Donejakue Bideko Autobidea (A12) zeharkatu behar izaten dute, zeinak erdibitu egiten baitu herria. Halaber adierazten zen ikasle horiek prezio altua ordaindu behar izaten dutela guraso-elkarte-ek antolaturiko eskola-garraioarengatik, edo ibilgailu partikularra erabili, egoera horrek trafikoari eta kutsadurari begira dakartzan ondorioekin.

Indarreko araudiak eskola-garraioaren ikasle onuradun gisa aitortzen ditu zenbait baldintza betetzen dituzten eta eskola-zonifikazioaren arabera dagokien ikastetxe publikoan eskolatzeko herriarteko garraioa beharrezkoa dutenak. Hala ere, baita herri baten barrenean ere irisgarritasun-problema daude, arrazoi ezberdinak direla-eta. Hain zuzen, eskaera horrek aldezipen zabala dauka ez Zizur Nagusian bakarrik, baita beste herri batzuetan ere, antzeko segurtasun- eta irisgarritasun-problema baitauzkate beren herrigunearen barrenean, autobideek edo trenbideek zeharkatuta baitaude.

Errebindikazio horretaz gain, landa-eremutik ere hainbat mozio onetsi izan dira azken urteotan udalerrir ugaritan, zeinen bidez eskola-garraioko zerbitzua exigitzen baita Iruñeko, Tuterako edo beren erreferentziako ikastetxeak dauden beste herri batzuetako ikastetxe publikoetan batxilergoko nahiz lanbide heziketako ikasketak egiten ari diren 16tik 18 urtera bitarteko ikasleentzat, landa-eremuaren despopulaketa ekiditeko funtsezko neurri gisa ere, hezkuntza-irisgarritasuneko berdintasunari dagozkion arrazoiengatik ez ezik.

Gaur egun, problema hau samurtze aldera, familiek, udalek eta baita Hezkuntza Departamentuak berak ere irtenbide partzialetara jo dute, hala nola taxiak, familien artean auto partikularrak txandakatzea, derrigorrezko hezkuntzako eskola-garraioa aprobetxatzea toki hutsak egonez gero, eta abar; baina bada garaia adabakiak alde batera utzi eta soluziobide integral bati ekiteko, despopulaketa geldiaraziko duena eta zerbitzu publikoetara iristeko aukera berdintasuna bermatuko duena, Nafarroako Gobernutik bertatik eta beste arlo batzuetatik proposatzen den bezala.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du, 2021-22 ikasturterako bete dezan gobernu-akordioan hartutako konpromisoa, “garraioa eskubide oso gisa aitortzea ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta OLHko ikasleei eta salbuespenezko neurriak hartzea beren ezaugarriengatik hala behar duten herrietan”.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du, hiru hilabeteko epean alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak, halako moduz non:

a. Eskola-garraioaren onuradun gisa sar daitezzen, 2.1 artikuluan, batxilergoko nahiz lanbide heziketako ikasketak egiten ari diren 16tik 18 urtera bitarteko ikasleak, landa eremuetatik Iruñeko, Tuterako edo beren erreferentziako ikastetxeak dauden beste herri batzuetako batxilergoko nahiz lanbide heziketako ikastetxeetara joan behar badute.

b. Eskola-garraioaren onuradun gisa sar daitezzen, 2.2 artikuluan, herri jakin batzuetako ikasleak, dagokien ikastetxe publikoan eskolatzeko segurtasun- eta irisgarritasun-arazo objektibo eta justifikatuak dauzkatena.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onets dezan Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita onets dezan Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Funtzio publikora sartzeko aukera-berdintasuna botere publikoek zaindu beharreko eskubidea da, hura arautzerakoan eta araudi erregulatzaile hori betearazteko administrazio-egintzak ematerakoan.

Eskubide hori urratu egin zen aurreko legegintzaldian, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena, onetsi zenean; izan ere, diskriminatzailea da, errealitate soziolinguistikoaren aurkakoa, eta, era berean, funtzio publikoan sartzeko aukera-berdintasunaren aurkakoa, euskaraz hitz egiten ez duten Nafarroako herritar gehien-gehienentzat.

Hori dela eta, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak 103/2017 Foru Dekretua partzialki baliogabetu zuen, euskara administrazioan sartzeko merezimendu gisa balioesteari dagokionez, honako hau adieraziz: “eremu mistoan eta zerbitzu nagusietan derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ez duen edozein lanpostutarako euskara merezimendu gisa baloratzeak diskriminazioa dakar Funtzio Publikoko lanpostuen

hornikuntzan, eta hori ez dator bat hizkuntza baloratzeko arrazionaltasun- eta proporzionaltasun-printzipioekin, merezimendu hori garrantzitsua izan ez daitekeen lanpostuei dagokienez, bete beharreko funtzioak eta kasuan kasuko lurralde-eremuko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta”.

Epaia eman zenetik urtebete eta bost hilabete joan dira. Denbora horretan, partzialki indargabetutako arau bat izateak eta hizkuntza-politika argirik ez izateak segurtasun juridiko falta handia eragiten ari da, eta horrek kalte egiten die foru- edo toki-funtzio publikoan sartu nahi dutenei; eta horretaz gainera, EH Bildu buruan duten udal asko lege-hutsune aprobetxatzen ari dira plantillak onesteko, eta haietan euskara eskatzen duten edo euskara merezimendu gisa baloratzen duten lanpostu gehiegi jasotzeko.

Horregatik, premiazkoa da Nafarroako Gobernuak horri buruzko legegintzan jardun dezan, euskara funtzio publikora sartzeko edo bertako sustapenez baliatzeko baldintza edo merezimendu gisa hartzeko aukera-berdintasunaren printzipioa ber-

matuz. Horretarako, beharrezkoa da bermatzea Nafarroako berezko hizkuntza hori eskatzen edo baloratzen den lanpostu-kopurua bat datorrela lanpostuaren premiekin eta errealitate soziolinguistikoarekin.

Horregatik guztiagatik,

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahal bezain laster onets dezan Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat, funtzio publikorako sarbidean eta bertako sustapenean aukera berdintasuna bermatuko duena. Horretarako, dekretu berriak bermatu beharko du euskararen nahitaezko ezagutza eskatu behar den lanpostuetan soilik eskatu ahal izanen dela, eta euskara merezimendu gisa balioesten duten eta nahitaezko ezagutza behar duten plantilla organikoko lanpostuen batura dagokion hizkuntza-eremuko euskal hiztunen ehunekoarekin zuzenean lotuta egonen dela.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan 2022. urtea baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan 2022. urtea baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Toki-erakundeek beren gerakinak (Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren xedapen bidez blokeatuta daudenak) libreki xedatzea behin eta berriz eztabaidatu eta aldarrikatu da gure herrialdeko erakundeetan, bereziki pandemiak eragindako egungo krisi ekonomiko eta sozial larria dela eta. Askotan errepikatu den bezala, udalek lehen lerroan lan egiten dute, beren eskumenetatik haratago beren bizilagunei lagunduz, eta egungo egoeraren aurrean baliabideak behar dituzte.

Gogoratuko dugunez, 2020ko uztailaren 1eko ezohiko osoko bilkuran, Senatuak mozio bat onetsi zuen gehiengo zabal batekin, talde parlamentario mistoak 2020. eta 2021. urteetan toki-erakundeen gastu-arauak aldatzeari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorio dena.

Era berean, Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkurak irailaren 10ean ezetsi zuen 27/2020 Errege Lege-dekretua, zeinak, beste neurri batzuen artean, udal-gerakinak Estatuari lagatzea jasotzen baitzuen, eta hartara indarrak gabe geratu zen. Ondoren, Ganberak 2020ko urriaren 20an onetsi zuen, Ministroen Kontseiluak urriaren 6an erabakia hartu ondoren, aintzat hartzea zerga-arauen etetea eragiten duen ezohiko larrialdi-egoera bat egon badagoela. Horrela, data horretatik aurrera, zerga-arauak etenda geratzen dira 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako, eta, beraz, toki-erakundeek diruzaintzako gerakina gastua finantzatzeko erabil dezakete.

Hala ere, funts horien liberazioa baldintzatzen ari den egoera praktikoa bat gertatzen ari da. Alde batetik, gaur egun inolako aurreikuspenik ez dagoelako 2022rako eteteari buruz. Hau da, 2022ko ekitaldian arau fiskalak berraktibatuko balira eten-dura luzatzen ez delako, 2022ko likidazioak gastu-araua, aurrekontu-egonkortasuna eta zor publikoaren helburua bete beharko lituzke. Horrela, denboran luzatuko den krisi-egoeraren aurrean, 2021. urte hau da udalek gastua eta inbertsioa beren gerakinen kargura egin ahal izanzen duten aldi bakarra.

Bestalde, funts propio horien bolumen izugarriak eta administrazio-izapideen konplexutasunak, kontratazio-araudiak ezarritako betekizunei eta epeei dagokienez, bideraezin egiten dute udalek –batez ere udalerrri txikienetan – 2021ean erabilgarri dauden gerakinak aprobetxatu eta agortuko dituzten proiektu eta programa guztiak kudeatu eta gauzatu ahal izatea.

Ez dago zalantzarik premiazkoa dela jarduketa askori ekitea, baina pandemiaren bilakaerari buruzko erabateko ziurgabetasuneko egoera batean, ezin da pentsatu 2022an gizarte-premia eta -eskaririk ez denik egonen, edo jarduera, ekonomia eta enplegua berreskuratzeko behar diren garapeneko eta aurrerapeneko udal-proiekturik. Horregatik, zentzurik ez luke izaneren soilik 2020an eta 2021ean onartzea udalek beren gerakinak erabili ahal izatea edo gastuak eta inbertsioak haien kontura egiteko epea izatea.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du dagozkion lege-xedapenak bultzatzen, zertarako-eta, 2022an gaur egun etenda dauden zerga- eta gastu-arauak berraktibatutako arren, ekitaldi hori baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten, egungo pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozial larri eta seguruenik luzei aurre egin ahal izateko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da maiatzaren 31ra arte luza dezan aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten pean egon eta 20.000 eurotik beherako errentak dituzten pertsonen diru-sarreraren osagarria.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita maiatzaren 31ra arte luza dezan aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten pean egon eta 20.000 eurotik beherako errentak dituzten pertsonen diru-sarreraren osagarria.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkezten du, Eskubide Sozietako batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Pandemiak aurrekaririk gabeko osasun publiko larrialdi bat eragin du, eta horri aurre egiteko alarma-egoerari lotutako neurriak abian jarri behar izan dira. Sektore ekonomiko guztiei eragiten dien krisi ekonomiko eta soziala eragin duten neurriak. Jarduera ekonomikoa eteteak edo murrizteak ondorio zuzenak izan ditu langileengan; izan ere, askotan ikusi dute aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen bidez kontratuak eteten zitzazkiela edo lanaldia murrizten zitzaiela, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan oinarrituta.

Langile horiek egoera horretan dauden bitartean enpleguari eutsi diote, baina langabezia-prestazioa kobratu dute eta, horrenbestez, errenta eta erosteko gaitasuna galdu dute. Bereziki soldata txikienak dituzten pertsonak.

Nafarroako Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluak osagarri bat ezarri zuen soldata txikienak dituzten langile horien langabeziagatik prestaziorako, "errenta-murrizketa hori neurri batean arintzeko eta, ahal den neurrian, beren premiak betetzea ahalbidetuko dien bizi-maila duina mantentzen laguntzeko". Horretarako, Nafarroako Gobernuak, urriaren 22an, dirulaguntzen deialdia onetsi zuen, ezohiko laguntzak emateko COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileei.

Deialdi horrek osatzen zituen 2020ko uztaillaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldiari zegozkion aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetatik eratorritako langabezia-prestazioak.

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerak enpresetan eta enpleguan ondorio negatiboak izaten jarraitzen duenez, onetsi egin dira, lehenik eta behin, 2021eko urtarrilaren 31ra arte, eta gaur egun, 2021eko maiatzaren 31ra arte, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako ezohiko neurriak.

Horregatik guztiagatik, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du maiatzaren 31ra arte luza dezan aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten pean egon eta 20.000 eurotik beherako errentak dituzten pertsonen diru-sarreraren osagarria.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deialdia berriki dezan eta beharrezko mekanismoak abian jar ditzan laguntza hori ahalik eta onuradun gehienengana iritsi ahal izateko.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen dauden enpresak azter ditzan eta berariazko prestakuntza-plan bat aurkez dezan, enplegu horiek sendotzen edo, hala bada-gokio, birkalifikatzen eta birkokatzen laguntzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta funtzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela honako mozio hau: erretiratu izanaz: “Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da alda dezan azaroaren 13ko 102/2017 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta fun-

tzionamendua eta eskola-jantokirako banakako laguntzak”. Mozioa EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00109).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPi finantza-hornidura eman diezaion, ukitutako NUPeko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko.

UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetu dadin honako mozio hau: “Mozioa, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPi finantza-hornidura eman diezaion, ukitutako NUPeko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen

ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko. Mozioa Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/MOC-00022).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira informazio-kanpaina bana egin dezaten kanabisaren kontsumotik heldu diren arriskuei buruz eta, zehazki, adingabeen artean kanabisaren kontsumoa prebenitzeko.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko otsailaren 24an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira informazio-kanpaina bana egin dezaten kanabisaren kontsumotik heldu diren arriskuei buruz eta, zehazki, adingabeen artean kanabisaren kontsumoa prebenitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen ditu informazio-kanpaina bana egin dezaten kanabisaren kontsumotik heldu diren arriskuei buruz eta, zehazki, adingabeen artean kanabisaren kontsumoa prebenitzeko”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2021eko otsailaren 24an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru hedabideetan eta hedabide nazionaletan, orotarikoetan zein espe-

zializatuetan, komunikazio-babesa eman diezaion Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea ospatzeari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan turistiko eta integral bat diseina dezan, aurrez izanen diren hitzordu horiek dinamizatu, garatu eta bultzatzeko, betiere pandemiaren murrizketek horretarako aukera ematen badute. Eta horretarako, kontuan har dezan, besteak beste, turismo-, ostalaritza- eta hotel-sektoreetako elkarten eta bidaia-agentzien parte-hartzea”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNeko, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko otsailaren 24an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua

egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea" Mozioa Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2020ko abenduaren 14ko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan ezin izanen dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2021eko otsailaren 24an egindako bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioa horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 2/2021 Foru Agindua alda dezan eta berariaz adieraz dezan

ezin izanen dela lokalen barrualdea erabili apustu-makinetan edo txanpon-makinetan aritzeko, eta 2021eko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2021 Foru Lege-dekretua, otsailaren 24koa. Honen bidez, egiten da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoek dagokienez), eta aldatzen dira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesioaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzek, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak 2/2021 Foru Lege-dekretua onetsi du, otsailaren 24koa. Horren bidez, egiten da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoek dagokienez), eta aldatzen dira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesioaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzek, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa.

Aipatu foru lege-dekretua 2021eko otsailaren 27ko 46. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2021eko martxoaren 18ko Osoko Bilkuran eginen direla otsailaren 24ko 2/2021 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa (10-21/DLF-00002).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2/2021 Foru Lege-dekretua, otsailaren 24koa. Honen bidez, egiten da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa (Zuzentarau horrek aldatzen du 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoiei dagokienez), eta aldatzen dira, alde batetik, kirol-lehia ofizial eta profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubei onartutako geroratzak, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak, eta, bestetik, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, jokoari buruzkoa.

Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, zeinaren bidez zenbait arau ezartzen baitira barne merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko jardunbideen kontra, aldatu zuen Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauak, azken horrek aldatzen baitu 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoiei dagokienez. Lege testu honen bidez, 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten da asimetria hibridoiei buruz dauzkan manuei dagokienez: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 26/2016 Foru Legean txertatzen da, 23 bis artikulua berria sartuta.

Kontseiluaren maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauak asimetria hibrido batzuk jasotzen ditu, ELGERen BEPS proiektuaren 2. ekintzari buruzko azken txostenean ezarritakoan oinarrituta. Asimetria horiek ezabatzeko beharrezko erregelak ezartzen ditu: lehen mandatu bat –hori da irtenbide guztietan egokien jotzen dena asimetria hibrido bakoitza neutralizatzeko–; eta bigarren mandatu bat, zeina aplikatu beharra dagoen aipatutako lehen mandatu hori aplikatzen ez denean dagokion jurisdikzioan, dela desadostasun bat dagoelako Zuzentarauaren transposizioan, dela asimetriak eragiten diolako asimetriaren kontrako defentsa neurririk onartuta ez daukan hirugarren estatu bati.

Foru lege-dekretu honen bidez txertatzen diren asimetria hibridoiei buruzko mandatuak aplikatzekoak izanen dira alderdien artean elkartze harreman bat dagoenean edo, bestela, alderdiek

mekanismo egituratu baten esparruan jarduten dutenean, bi kasuetan Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren xedatutakoaren ildotik. Horregatik, lotura kasu berriak jasotzen dira, asimetria hibridoak ezabatzeko bakarrik, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren elkartze kasu guztiak estaltze aldera, eta eremu horretan mekanismo egituratu gisa zer ulertu behar den definitzen du.

Foru lege-dekretuak artikulua bakarra du, xedapen gehigarri bat eta lau azken xedapen.

Artikulu bakarrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzen du, artikulua berri bat gehituta, 23 bis artikulua, “asimetria hibridoak” izenekoa, non arautzen baitira honako asimetria hauek neutralizatzeko manuek: finantza-tresna hibridoien asimetriak, erakunde hibridoienak, establezimendu iraunkor hibridoienak, inportatutako asimetriak eta transferentzia hibridoien asimetriak. Izan ere, ukatzen da kalifikazio edo esleipen desberdintasunengatik gastuaren kengarritasuna sozietateen gaineko zergan, ez denean zergarik ordaintzen diru-sarrera korrelatiboarengatik, edo gastu hori kengarria denean beste entitate batean. Xedatzen da, era berean, zerga oinarrian sartzen ahal dela lehenengo araua aplikatu ez den beste herrialde edo lurralde batean zerga aldetik kengarria izan den gastu bati dagokion sarrera.

Artikulu horretan arautzen da, orobat, establezimendu iraunkor ez-konputatuaren kasua eta egoitza fiskalarekin lotutako asimetria. Aipatu arauetz gain, txertatzen dira 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren eremu subjektiboaren eta materialaren transposizioa egiteko beharrezkoak diren definizioak.

Bestalde, indarrak gabe uzten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 23.1.j) artikuluan ezarritakoa, haren edukia txertatzen baita 23 bis artikulua berriaren 1. apartatuan.

Tresna finantzario hibridoaren asimetriak, zeina aipatzen baita Kontseiluaren 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 2.9 artikuluan lehen paragrafoaren a) letran, asimetria bat sortzen du emaitzetan, “sartu gabeko kenkaria” motakoa. Asimetria hori honetan datza: gastu bat kentzen da ordainketa egiteko agindua eman duenaren herrialdean, baina, gastu horren diru-sarrera korrelatiboari dagozkion zergak ez dira ordaintzen, arrazoizko epe batean, onuradunaren edo inbertitzailearen herrialdean, desberdintasunak daudelako tresnaren edo gastuaren kalifikazioan. 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 9.2 artikuluan xedatutakoari helduz, asimetria hori neutraliza-

tzeko lehen araua da Espainian bizi den zergadunaren sozietateen gaineko zergan gastua ez kentzea agindu-emailearen herrialdea Espainia denean; eta bigarren araua, berriz, diru-sarrera sartzea zerga horren zerga-oinarrian, salbuespenik egin gabe, Espainia denean onuradunaren edo inbertitzailearen herrialdea, eta agindu-emailearen herrialdean baimendu denean gastua kentzea. Manu hori arautzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 35. artikuluan.

Asimetria mota horren esparruan, 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 2.9 artikulua bigarren paragrafoaren a) letrak argitzen du ez duela asimetria hibridorik sortzen tresna finantzario transferitu baten azpiko etekinaren ordainketak, finantza operadore batek egin duenean merkatuan sartutako transferentzia hibrido baten esparruan, non eta ez den mekanismo egituratu baten parte. Hori hala izanen da, baldin eta agindu-emailearen jurisdikzioak finantza operadorea behartzen badu errenta gisa sartzera tresna finantzario transferituaren harira jasotako zenbateko guztiak. Ondorio horietarako, zuzentarauak definitzen du zer diren merkatuan sartutako finantza operadorea eta transferentzia hibridoa.

Ildo horretan, agindu-emailea sozietateen gaineko zergaren zergaduna denean, eta artikulua horietan aipatzen diren eragiketei dagokienez, aipatutako obligazio hori araututa dago Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 35. eta 57. artikuluetan.

Honela definitzen dira entitate hibridoak 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren: “jurisdikzio bateko legeriaren arabera zergapeko entitatetzat hartzen den entitate edo mekanismo oro, zeinaren errenta edo gastuak beste subjektu baten edo batzuen errenta edo gastutzat hartzen baitira beste jurisdikzio bateko legeriaren arabera”.

Gerta daiteke 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren 2.9 artikulua lehen paragrafoaren e) letran aipatzen diren erakunde hibridoaren kasuan, erakundea ezarrita edo erregistratuta dagoen herrialdeko edo lurraldeko legerian eta erakunde horren inbertitzailearen herrialdeko legerian kalifikazio fiskal desberdina izatea eta, horren ondorioz, “sartu gabeko kenkaria” motako emaitzen asimetria sortzea. Horrelakoetan, bi arau hauek aplikatuko dira: lehen araua, gastua ez kentzea Espainiako lurraldean egoitza duen zergadunaren sozietateen gaineko zergan, Espainia denean agindu-emailearen herrialdea (hau da, ordainketa hori egintzat jotzen den herrialdea); eta, bigarren araua, sarrera sartzea zergadun horren zerga-oinarrian, onuradunaren edo inbertitzailearen herrialdea Espainia denean (hau da, ordainketa hori jasotzen den edo

jasotzat jotzen den herrialdea), eta agindu-emailearen herrialdeak baimentzen duenean gastuaren kengarritasuna. Bi arau horiek gehitzen zaizkio Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeari, eta honako hau ezartzen da: gastu bat ez bada kengarria, ez dagoelako konpentsaturik inklusio bikoitzeko errenta bat sortzen duen diru-sarrera batekin, hurrengo hiru urteetan kengarria izanen da, baldin eta hura konpentsatzen duen eta inklusio bikoitzeko errentatzat jotzen den diru-sarrera bat sortzen bada. Horrez gain, zerga-oinarrian txertatutako sarrerak oinarri hori murriztu ahal izanen du epe berean, baldin gastua konpentsatzen bada inklusio bikoitzeko errentatzat jotzen den sarrera batekin.

Bestalde, 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren 2.9 artikulua lehen paragrafoaren b) letran jasotako den alderantzizko entitate hibridoaren kasurako, lehen arauaren transposizioa baino ez da egiten, erabiliz 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren 9.4 artikulua a) letran Europar Batasuneko estatuei emandako ahalmena. Arau horretan xedatutakoa betez, sozietateen gaineko zergaren zergadunari gastua ken dezala ukatzen zaio diru-sarrerarik sortzen ez denean, kalifikazio fiskal desberdina duelako eragiketa egiten den entitate lotuak entitate horren beraren herrialdean edo lurraldean eta inbertitzailearen edo erakundearen partaidetza duenaren herrialdean edo lurraldean.

Lehen arau bera aplikatuko da “sartu gabeko kenkaria” motako emaitza sortzen duten establezimendu iraunkor hibridoaren asimetrietan, hau da, 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren 2.9 artikulua lehen paragrafoaren c) eta d) letratan aipatzen direnetan. Kasu horietan, lehen arau gisa ezartzen da ez dela gastu fiskalki kengarritzat hartuko sozietateen gaineko zergaren zergadunak egindako ordainketa. Bigarren arauaren transposizioa ez da egiten, arestian aipatutako ahalmenagatik. Establezimendu iraunkorren asimetriari dagokionez –zeina jasota baitago 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren 2.9 artikulua lehen paragrafoaren f) letran–, ezartzen den lehen arauak ez du ahalbidetzen zenbatetsitako gastua kengarria izan dadin, non eta ez den konpentsatzen establezimendu iraunkorren diru-sarrera batekin, zeinak sortzen baitu inklusio bikoitzeko errenta, hiru urteko epea delarik kentzeke dagoen zatia kentzeko, baldin eta konpentsatzen bada inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten diru-sarrerekin.

Establezimendu iraunkor ez-konputatuaren asimetria, 2016/1164 (EB) Zuzentaruaren 9.5 artikulua jasotakoa, honela definitzen da: establezimendu iraunkor bat dagoenean etxe nagusia dagoen herrialdeko legeriaren arabera, baina ez,

ordea, beste herrialde edo lurraldeko legeriaren arabera. Egoera horren ondorioz, asimetria bat sortzen da, “ez-inklusio bikoitzekoa”, establezimendu iraunkor horren errentek ez baitute tributatzeko beharrik. Asimetria hibrido horren harira, manu bat sartzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean, Zuzentarauan agindutakoa betetze aldera.

Emaitzen asimetria “kenkari bikoitza” motakoa denean (2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 2.9 artikulua lehen paragrafoaren g) letran aipatua), hau da, zerga arloan kengarria den gastutzat hartzen denean gastu bera bi herrialdetan edo lurraldetan, 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 9.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehen araua da sozietateen gaineko zergan gastua kentzea ukatzea, inbertitzailearen herrialdea Espainia denean. Bigarren araua da gastu horren kengarritasuna ukatzea gastu hori egin duen zergadunari, baldin agindu-emailearen herrialdea Espainia bada eta inbertitzailearen herrialdeak edo lurraldeak ez badu kenkari hori ukatu. 2016/1164 (EB) Zuzentarauan adierazitakoaren arabera, agindu-emailearen herrialdea da ordainketa sortu den herrialdea, gastua edo galera sortu den herrialdea, edo, erakunde hibrido batek edo establezimendu iraunkor batek egindako ordainketak direnean, horiek dau den herrialdea edo lurraldea; eta inbertitzailearen herrialdea beste herrialdea edo lurraldea da.

2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 9.3 artikuluan arautzen diren inportatutako asimetrietarako arauak xedatzen du ukatu beharko dela “zergadun batek gauzatutako ordainketa batengatik egin den kenkaria, baldin eta ordainketa horren bidez finantzatzen badira, zuzenean edo zeharka, transakzio baten bidez edo mekanismo egituratu baten esparruan elkartu edo adostutako enpresen artean egindako transakzio batzuen bidez asimetria hibrido bat eragiten duten gastu kengarriak, salbu transakzioek edo transakzio serieek eragindako jurisdikzioetako batek asimetria horri dagokion doikuntza baliokide bat egin badu”. Kasu horietan, asimetria hibridoa ez da gertatzen sozietateen gaineko zerga aplikatzen den lurraldean, baizik eta asimetria hibridoak saihesteko arauak –2016/1164 (EB) Zuzentarauan araututakoen modukoak– aplikatzen ez dituzten hirugarren herrialdeetan edo lurraldeetan, nahiz eta 2016/1164 (EB) Zuzentarauan adierazitako asimetrietakoren bat finantzatu, sozietateen gaineko zergaren zergadun batengan fiskalki kengarritzat hartzen den gastu baten bidez. Aipatutako manuairen transposizioan emandako arauak ukatzen du gastu hori kengarria izatea sozietateen gaineko zergaren zergadunarentzat.

Araututako beste asimetria bat “egoitza fiskalarekin lotutako asimetria” izenekoa da. Hari dagokionez, 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 9 ter artikulua bereizi egiten du hirugarren herrialdeekin gertatzen den, edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena duten Europar Batasuneko estatuen artean gertatzen den. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, eta bietan lehenari dagokionez, gastuaren kengarritasuna ukatzen da sozietateen gaineko zergaren zergadunarengan, baldin eta beste herrialdean kengarritasun hori baimentzen bada, inklusio bikoitzeko errentarik sortzen ez duten diru-sarrerekin konpentsatuta. Bigarren kasuari dagokionez, gastua sozietateen gaineko zergan kengarria izanen da, bakar-bakarrik, baldin eta zergadunak egoitza fiskala Espainiako lurraldean badu, bat etorri zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen horrekin.

Atxikipenen erabilera bikoitzak eragindako transferentzia hibridoan asimetriari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak baditu zenbait manu, asimetria horien ondorioen zati bat ezabatzen dutenak. Beraz, 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 9.6 artikuluan araututako manuairen transposizioa egin beharra dago, bakar-bakarrik, sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipenei dagokienez. Txertatuko da bat etorri 2017/952 (EB) Zuzentarauaren 23. kontuan hartuzkoan jasotako gomendioarekin.

Bestalde, foru lege-dekretu honen xedapen gehigarri bakarrak badakar salbuespenezko neurri bat, zerga-zorren atzerapen jakin batzuei buruzkoa, kokatzen dena koronabirusak eragindako krisiaren ondorioak arintzeko hartutako neurrien barruan. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriak 2017an geroratzeko baldintza bereziak ezarri zituen kirol-lehia ofizial eta profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubentzat. Diru-sarrerak murriztu egin dira babesletzen beherakada izan delako eta jendeak ezin duelako instalazioetara sartu. Horregatik, 2021ean hamabi hilabeteko gabealdia ematea badago, aurrez eskatzen bada, arestian aipatutako geroratze horietarako, geroratzeen gehieneko epea luzatu gabe; hau da, hurrengo hamabi hilabeteetan ordainduko ez diren kuotak hainbanatuko dira zenbat hilabete geratzen diren jatorrizko ordainketa-egutegia azkendu arte, hilabete horien artean.

Azken xedapenetako lehenean adierazten da foru lege-dekretuaren bidez Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzen dela Nafarroako foru zerga antolamenduan.

Azken xedapenetako bigarrenak aldatzen du Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea; hirugarren xedapen iragankorra aldatzen du bereziki, zeinaren bidez arautzen baita baime-
nen emakida etetea Nafarroako Foru Komunitate-
an joko- edo bingo-areto berriak jartzeko. Hasiera
batean, etenaldi hori ezarri zen 2020ko uztailaren
31ra arte, edo Jokoari buruzko Foru Legearen
aldaketak indarra hartu arte, baldin indar-hartze
hori lehenago gertatzen bazen. COVID-19aren kri-
siaren ondorioz, behin eta berriro luzatu behar
izan da aipatu etenaldia; azken luzapena 2021ko
martxoaren 17an bukatu zen.

Kontuan hartuta zer egoera izan den Nafarroa-
ko Foru Komunitatean osasun-krisia dela-eta, eta
ikusita ezinezkoa dela lege-testu berri bat presta-
tzea partehartze eta negoziazio printzipioak betez,
normaltasun berriaren garaian funtzionamendu-
mugek nabarmen eragindako sektore batekin,
beharrezkoa da denbora-agertoki zabalago bat
sortzea. Horregatik, foru lege-dekretu honen
bidez, etenaldia 2021eko irailaren 30era arte luza-
tzen da.

Bestalde, azken xedapenetako hirugarrenean
arautzen da foru lege-dekretu hau Nafarroako
Parlamentura igorriko dela, baliozkotu dezan, bat
etorri Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta
Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982
Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. aparta-
tuan ezarritakoarekin. Azken xedapenetako lauga-
rrenean, berriz, indarra hartzea arautzen da.

Esku artean dugun gaiaren konplexutasunak
eta COVID-19aren pandemiak eragindako egoe-
rak ez dute aukerarik eman zuzentarauaren trans-
posizioa behar bezain azkar egiteko; beraz, lehen-
bailehen ekin behar zaio zeregin horri.

Horrek guztiak berekin dakar foru lege-dekre-
tuaren bidea erabili behar izatea. Izan ere, kasu
honetan, presako arazoak daude testu arauemai-
le honetan jasotako arauzko aldaketak egiteko:
aldaketok onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
an argitaratu behar dira eman den luzapen-epaia
amaitu aurretik (epe hori 2021eko otsailaren 28an
bukatu da), hala errekeritu baitu Europako Bat-
zordeak, Europar Batasunaren Fun-
tzionamenduari buruzko Tratatuaren 258. artiku-
luaren lehen paragrafoan xedatutakoa betez.
Horiek horrela, foru lege-dekretua da ezarritako
epaia betetzea bermatzen duen tresna bakarra;
hala, lortuko da foru lege-dekretuan jasotako neu-
rriek berehalako ondorioak sor ditzatela, eta haren
edukiaren berri emanen zaio Nafarroako Foru Par-
lamentuari, gerora berronets dezan.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraen-
tza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren
10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artiku-
luan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako,
Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko
kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gober-
nuak bi mila eta hogeita bateko otsailaren hogeita
lauan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin
bat etorri,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergari
buruzko Foru Legea aldatzea.

Jarraian adieraziko diren aldaketak egiten dira
abenduaren 30eko 26/2016 Foru Legean, Sozietate-
teen gaineko Zergari buruzkoan. Eragina izanen
dute 2020eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten
diren zergaldien gainean, non eta ez diren amaitu
foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean.
Hona aldaketak:

Bat. Indarrik gabe uzten da 23.1.j) artikulua.

Bi. 23 bis artikulua gehitzen da.

“23 bis artikulua. Asimetria hibridoak.

1. Ez dira fiskalki kengarriak izanen egoitza
beste herrialde edo lurralde batean duten per-
tsona edo entitate lotuekin egindako eragiketei
dagozkien gastuak, baldin eta, gastu edo eragike-
taren kalifikazio fiskal desberdina izateagatik, ez
badute diru-sarrerarik sortzen, edo sortuta ere,
hura salbuetsitako diru-sarrera bada, zerga tasa-
ren murriztapena aplikatu behar bazaio, edo
zergapetze bikoitz juridikoa saihesteko kenkaria
ez den beste edozein kenkari aplikatu behar
bazaio.

Diru-sarrera sortzen bada zergadunarentzako
gastua sortu den zergaldia amaitu ondorengo
hamabi hilabeteetan hasten den zergaldian, gastu
hori fiskalki kengarria izanen da diru-sarrera hori
onuradunaren zerga-oinarrian sartzen den zergal-
dian.

2. Ez dira fiskalki kengarriak izanen beste
herrialde edo lurralde batean egoitza duten per-
tsona edo entitate lotuekin egindako eragiketei
dagozkien gastuak, baldin eta, zergadunak herrial-
de edo lurralde horretan kalifikazio fiskal desberdi-
na izatearen ondorioz, diru-sarrerarik sortzen ez
badute, inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten
diru-sarrerekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplika-
tzearen ondorioz kendu ez diren gastuen zenbate-
koa kendu ahal izanen da gastu horiek zer zergal-
ditan sortzen diren, zergaldi horren ondoko hiru
urteetan amaitzen diren zergaldietan, baldin eta

konpentsatzen bada inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten zergadunaren diru-sarrerekin.

Zerga oinarrian sartuko da beste herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketen zenbatekoa, baldin eta horiek beste herrialde edo lurralde horretan fiskalki kengarritzat hartu badira beste kalifikazio fiskal bat izateagatik, inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten diru-sarrerekin konpentsatu ez den zatian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zerga oinarrian sartutako zenbatekoa zerga oinarritik kendu ahal izanen da, diru-sarrera zer zergalditan sartzan den, zergaldi horren ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan. Hori hala izanen da, baldin eta gastu hori beste herrialdean edo lurraldean konpentsatzen bada pertsona edo entitate lotuaren diru-sarrerekin, azken horiek inklusio bikoitzeko errenta sortzen dutenean.

3. Ez dira fiskalki kengarriak izanen beste herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketen gastuak, baldin eta diru-sarrera bat sortzen ez badute, kalifikazio fiskal desberdina dutelako herrialde edo lurralde horretan eta partaidearenean edo inbertitzailearenean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, lotura harremana dagoenean, bakar-bakarrik, zergadunaren eta aipatutako partaide edo inbertitzailearen artean.

4. Ez dira fiskalki kengarriak izanen beste herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin egindako edo pertsona edo entitate horiek egindako eragiketei dagozkien gastuak, baldin eta, kalifikazio fiskal desberdina izatearen ondorioz, pertsona edo entitate lotu horietan fiskalki kengarriak diren gastuak ere badira, inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten diru-sarrerekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz kendu ez diren zenbatekoak kendu ahal izanen dira gastu horiek zer zergalditan sortzen diren, zergaldi horren ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan. Hala izanen da, baldin eta konpentsatzen badira inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten pertsonaren edo entitate lotuaren diru-sarrerekin.

Ez dira fiskalki kengarriak izanen zergadunak egindako eragiketen gastuak, baldin eta pertsona edo entitate lotu baten herrialde edo lurraldean fiskalki kengarritzat ere hartzen badira, zergadunaren kalifikazio fiskal desberdinaren ondorioz, inklu-

sio bikoitzeko errenta sortzen duten diru-sarrerekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz kendu ez diren zenbatekoak kendu ahal izanen dira gastu horiek zer zergalditan sortzen diren, zergaldi horren ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, baldin eta konpentsatzen badira inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten zergadunaren diru-sarrerekin.

5. Honako hauek ez dira fiskalki kengarriak izanen:

a) Zergadunaren edo entitate lotu baten establezimendu iraunkor batekin edo establezimendu iraunkorrek dituen entitate lotu batekin egindako eragiketei dagozkien gastuak, baldin eta, establezimendu iraunkorren eta bere etxe nagusiaren artean edo bi establezimendu iraunkor edo gehiagoren artean diru-sarreraren egozpenean diferentzia fiskal bat izatearen ondorioz, diru-sarrerarik sortzen ez badute.

b) Zergadunaren edo pertsona edo entitate lotu baten establezimendu iraunkor batekin egindako eragiketei dagozkien gastuak, baldin eta diru-sarrerarik sortzen ez badute, dagokion herrialdeak edo lurraldeak ez duelako establezimendu iraunkor hori fiskalki halakotzat hartzen.

c) Zergadunaren establezimendu iraunkor batekin egindako barruko eragiketetan zenbatesitako gastuak, horrela aitortuta daudenean nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko aplikatzea den hitzarmen batean, baldin eta diru-sarrera bat sortzen ez badute, establezimendu iraunkorren herrialde edo lurraldeko legeriaren ondorioz, inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten establezimendu iraunkorren diru-sarrerekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz kendu ez diren gastuen zenbatekoa kendu ahal izanen da ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, baldin eta zergadunaren zerga oinarrian sartzan badira, hark dituen inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten establezimendu iraunkorren diru-sarrerak.

d) Zergadunaren establezimendu iraunkor batekin edo batek egindako eragiketei dagozkien gastuak, fiskalki kengarriak direnean establezimendu iraunkor horretan edo harekin lotutako entitate batean; establezimendu iraunkor edo entitate lotu horren diru-sarreretatik inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten horiekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz kendu ez diren zenbatekoak

kendu ahal izanen dira gastu horiek zer zergalditan sortzen diren, zergaldi horren ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan. Hala izanen da, baldin eta konpentsatzen badira inklusio bikoitzeko errenta sortzen duten establezimendu iraunkorren edo entitate lotuaren diru-sarrerekin.

6. Ez da 36. artikuluan ezarritakoa aplikatuko establezimendu iraunkor baten bitartez lortutako errenten kasuan, dagokion herrialdeak edo lurraldeak ez duenean establezimendu iraunkor hori fiskalki halakotzat hartzen.

7. Ez dira gastu fiskalki kengarriak izanen beste herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin egindako transakzio bati edo transakzio sorta bati dagozkion gastuak, baldin eta zuzenean edo zeharka finantzatzen badituzte aurreko apartatuetan aipatutako asimetria hibridoaren eraginez sortutako ondorioak dakartzaten eragiketen esparruan egindako gastu kengarriak, salbu eta ukitutako herrialde edo lurraldeetako batek doikuntza bat egin duenean gastua ez kentzeko edo diru-sarrera zergapetzeko, apartatu horietan jasotakoaren arabera.

8. Zerga honen kontura egindako atxikipenaren zenbatekoa kengarria izanen da zerga honen beraren kuota osoan, zerga oinarrian integratu den eta Espainiako lurraldean egoitza ez duen pertsona edo entitate lotu batekin eginiko transferentzia hibrido batean lortutako errentari dagokion proportzioan.

Ondorio horietarako, transferentzia hibridotzat hartzen da finantza-tresna baten transferentziarekin lotutako eragiketa oro, baldin eta jotzen bada, zerga-ondorioetarako, eragiketan esku hartzen duten alderdietako batek baino gehiagok lortu dutela, aldi berean, transferitutako finantza-tresnaren azpiko errendimendua.

9. Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da, era berean, aipatutako eragiketak mekanismo egituratu baten esparruan egiten direnean, kontuan hartu gabe pertsona edo entitate lotuen artean egiten diren edo ez.

Ondorio horietarako, mekanismo egituratutzat hartzen da ezaugarri hauek dituen akordio, negozio juridiko, eskema edo eragiketa oro: hartan kuantifikaturik egotea, edo haren baldintzetan edo kontraprestazioetan jasota egotea, apartatu horietan aipatutako asimetria hibridoetatik apartatu horietan zehaztutako baldintzetan eratorritako abantaila fiskala, edo, bestela ere, hura diseinatu izana asimetria horien emaitzak eragiteko, non eta zergadunak edo hari lotutako pertsona edo entitate batek ez duen adierazitako abantaila fiskala

partekatuta, emaitza horien berri modu arrazoizkoan izan ez izanagatik.

10. Zergadunak egoitza fiskala beste herrialde edo lurralde batean ere duenean, herrialde horretan fiskalki kengarriak diren gastuak edo galerak ez dira fiskalki kengarriak izanen, inklusio bikoitzeko errenta sortzen ez duten diru-sarrerekin konpentsatzen den zatian.

Gastu hori beste herrialdean edo lurraldean konpentsatzen bada gastua kendu edo zergadunak galera izan ondoko zergaldi batean, zergadunak konpentsazio horri dagokion zenbatekoa sartu beharko du bere zerga oinarrian, konpentsazioa gauzatzen den zergaldian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko beste herrialdea edo lurraldea Europar Batasuneko estatu bat denean, zeinarekin Espainiak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat sinatuta duen, baldin eta hitzarmen horretan jotzen bada zergadunak baduela egoitza fiskala Espainiako lurraldean.

11. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertzen da diru-sarrera batek inklusio bikoitzeko errenta sortzen duela zergapeturik dagoenean foru lege honi eta beste herrialde edo lurraldeko legeriari jarraituz.

12. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzean, honako hauek hartuko dira pertsona edo entitate lotutzat:

a) 28. artikuluan xedatutakoarekin bat lotutako entitateak edo pertsonak.

b) Zuzenean edo zeharka zergadunaren boto-eskubideetan ehuneko 25eko edo hortik gorako partaidetza duen entitate bat, edo eskubidea duena zergadunaren irabazien ehuneko 25 edo hortik gora jasotzeko; edo zergadunak hartan partaidetza edo eskubide horiek dituen entitate bat.

c) Pertsona edo entitate bat, zeinaren gainean zergadunak jarduten duen, beste pertsona edo entitate batekin batera, haren boto-eskubideen edo kapitalaren jabetzaren gainean; edo pertsona edo entitate bat, zeinak beste batekin batera jarduten duen zergadunaren boto-eskubideen edo kapitalaren jabetzaren gainean.

Ondorio horietarako, zergaduna, edo, bigarren kasuan, pertsona edo entitate hori partaidetza baten titulartzat hartuko da, beste pertsonaren edo entitatearen jabetzakoak diren entitate horren edo zergadunaren, hurrenez hurren, boto-eskubide guztiei edo kapitalaren jabetzari dagokienez.

d) Entitate bat, zeinaren kudeaketan zergadunak eragin nabarmena duen, edo entitate bat, zeinak eragin nabarmena duen zergadunaren kudeaketan. Ondorio horietarako, eragin nabarmena dagoela ulertzen da beste erakunde baten finantza- eta ustiapen-politikako erabakietan esku hartzeko ahalmena dagoenean, haren kontrola edo baterako kontrola izatera iritsi gabe”.

Xedapen gehigarri bakarra. Kirol-lehia ofizial eta profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubentzako geroratzeak aldatzea, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutakoak.

Foru lege-dekretu honek indarra hartu duen egunean, kirol klub batzuek indarrean dituzte Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren babespean onartutako ordainketa geroratzeak. Kirol klub horiek eskatu ahal izanen dute, geroratze horietarako, hamabi hilabeteko gabealdia eman dakien ordainketan. Epe horri dagozkion kuotak banatu beharko dituzte, zati berdinetan, ordaintzeke dauden epeetan.

Eskaera hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, xedapen honek indarra hartzen duenetik zenbatzen hasita, eta aplikatuko da xedapen honek indarra hartzen duen egunean mugaeguneratu gabe dagoen lehen kuotaren gainean. Gabealdia emateko, kirol klub eskatzaileek egunean izan beharko dituzte Nafarroako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eskaera egin duten unean.

Diru-bilketaren arloan eskumena duen organoak birformatuko du ordainketa-egutegi berria, eta egutegi horretatik sortzen diren berandutze-interes berriak likidatuko ditu. Geroratzeak eman ziren unean horiei buruz ezarri ziren baldintza guztiek indarra izaten jarraituko dute.

Azken xedapenetako lehena. Europar Batauneko zuzenbidea txertatzea.

Foru lege-dekretu honen bidez, Nafarroako foru araudian sartzen dira Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauan asimetria hibridoiei buruz xedatutakoa (zuzentarau horren bidez ezartzen dira barne merkatuaren funtzionamenduaren gain zuzeneko eragina duten

saiheste fiskaleko jardunbideen kontrako arauak). Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauak emandako idazkera hartu da, zuzentarau horrek aldatzen baitu 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoiei dagokienez.

Azken xedapenetako bigarrena. Jokoari buruzko Foru Legea aldatzea.

Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea.

2021eko irailaren 30era arte ez da eskaerarik onartuko, ezta baimenik emanen ere, joko- edo bingo-areto berriak edo berariazko apustu-lokal berriak ustiatzeko.

Era berean, ez da onartuko eskaerarik eta ez da emanen baimenaren bideragarritasunari buruzko aurretiko kontsulten ebazpenik.

Horrez gain, ez da eskaera berririk onartuko, ezta baimen berririk emanen ere, Joko-makinen Erregelamendua onesten duen uztailaren 31ko 181/1990 Foru Dekretuaren 10. artikuluan aipatutako lokaletan joko-makinak eta apustu-makina lagungarriak jartzeko, salbu iturburu badu ostalari-tzako lokalaren titulartasunaren aldaketa”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, baliozkotu dezan, bat etorri Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoarekin.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du, bertan aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an. Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía

